

GAZTE-AKTIBO

Gure ideia, nerabeentzako lokal bat egitean datza. Lokal honek, hainbat gela desberdin edukiko ditu, eta gela bakoitzean, gazteon beharrak asetzeko gela desberdinak egongo dira. Nerabeen behar asko asetzen ditugu, aisialdia, sozializazioa, ikastea, barkadadea saiestu eta abar. Behar hauek asetzeko, kafetegi bat, terapia gela bat, liburutegi bat, jolasteko gela bat eta festak antolatzeke gela bat izango ditugu gure lokalean.

Lokal hau Gasteizen egongo da. Gasteizen antzerako lokalik ez dagoenez, gure enpresak arrakasta handiagoa izateko probabilitate handiagoak izango ditu. Are gehiago, zerbitzu hauek beste leku batzuetan eskeintzen badira ere, ez daude guztiak toki berean, ez dira gazteentzako bakarrik eta batzuk (terapiak, adibidez) gazteentzako garestiegiak dira. Guk arazo guzti horiek konponduko ditugu gure lokalean.